

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Literatura femeninoa?



ARITZ GALARRAGA

Gehigarri kulturalak batzuetan betetzen dutela beren zeregina, aizue: halako batean ehizatutako pieza baten ondorioz iritsi naiz Siri Hustvedt idazlearen azkena, *Madres, padres y demás*, irakurtzera. Jaso dituen laudorio hiperbolikoak alde batera utzita –“XXI. mendeko Virginia Woolf”–, erantzun benetan argigarriak ematen dituelako. Adibidez hau, literatura femeninoa existitzen ote den galdetuta: “Existitzen bada, idazten duenaren gorputzetik bananduta dago. Zentzu horretan, esan daiteke Henry James idazle femenino bat dela eta Gertrude Stein idazle maskulino bat”. Interesgarriago iruditzen zaio, ordea, mugak ezabatzea, “guztiok errotuta dauzkagun kategoriak leherraraztea, humanoa eta naturala, maskulinoa eta femeninoa, zerua eta infernua. Emily Brönte egiten duen gisan *Gailur ekaiztsuak* nobelan, lan sakonki filosofiko bat, edo Virginia Woolfek, *Farorantz* eleberrian, inoizko literatura maistra-lan handienetako bat”.

Liburuan gehixeago garatzen ditu kontu horiek, adibidez “Fantasmas mentores” izeneko testuan: “Henry James murgildu izan zen femenino deitu izan dugun horretan, eta Gertrude Stein maskulinoa dela imajinatzen dugunean”. Suposatzen da “gizonezkoak direla goranahi literario, akademiko, zientifikoa helburu duen borroka edipiko batean nahasten direnak”; eta emakumezkoak “borrokalekutik kanpo geratzen dira, edo sukaldetik atera gabe”. Baina, benetan, “femeninoa dena eta maskulinoa dena nahastuta daude, ezpuruak dira, nahaste-borraste bat”. Ez da harritzekoa, hartara, “jendeak egiazki ez gauza bat ez bestea den pertsona bat bezala bizi nahi izatea”. “Fronteras abiertas” izenekoan, aldiz, zera dio: “Sexu diferentziak”, eta sexu itzuli diote, baina agian genero esan nahiko zuen, “funtsezkoa izaten du jarraitzen munduak gaur egun nola funtzionatzen duen ulertzeko”. Eta hori horrela izango delakoan nago, helburu beharko lukeen generoen deuseztatzea gauzatu arte. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

ZELATATUAK!?!



Heriotza

20 urteko migratzaile baten gorpua aurkitu dute Bilboko Zabalgarbiko errauste plantan. Egun bat geroago, gizon etxegabe bat aurkitu dute hilda hiriburuan. Bilboko Casilda Iturrizar parkeko banku batean lotan ari zela zendu da.

Gerra zikina

Gerra zikinaren 23 biktimak terrorismoaren biktima aitortza eskatu dute auzitegian, baina kostu judizialak ordainarazi dizkiete. Egiari Zor fundazioaren arabera, guztira 106.000 euro ordaindu dituzte GAL eta Batallon Vasco Españolen 23 biktimen familiek.

Oinarrizko errenta

Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errentaren aldeko herri ekinaldi legegileak 22.075 sinadura lortu zituen proposamena Eusko Legebiltzarrera eramateko. EAJ, PSE, PP eta Vox-en botoekin atzera bota dute proposamena eztabaidatzea.